

ikastola

KUTXA BERRIA ELKARTASUNARENTZAT



...surfa, piraguismoa, ikastaroak, kontzertuak,
hizkuntzak, lehiaketak, kirolak, campusak...

Udan gelditu barik



...plan pila uda honetarako
eta zozketak,
hizkuntza-ikastaroetan,
saskibalo-i-campusetan,
mendi-ibilaldietan... begiratu
hemen: www.bbk.es

Eta **Athletic-eko
motxila hau opari***
Gaztedi Plana orain
irekitzen baduzu.

**BBK GAZTEDI
PLANA**



Hemen
gaitu-
zu

bbk²



*Sustapena indarrean egongo da,
gutxienez 300€ko saldoa duen kontua
irekitzen baduzu. Dagoeneko Gaztedi
Plana baduzu, gonbidatu lagun bat Plana
egitera, eta motxila bana eroango duzue.
Izakinak agortu arte.



- 3 ELKARRIZKETA: ITZIAR ELORZA
- 8 ORIENTAZIO AZOKA ANTOLATU DUTE BIGARREN URTEZ LAUDION
- 10 IBAIZABAL, GERO ETA ARGÍ GEHIAGO IKUSTEN DUEN IKASTOLA
- 12 HHko HAMAR GELA BERRI EGURREZKO ERAIKINEAN
- 14 EHik BERE BIGARREN EGOITZA IZANGO DU IPARRALDEAN
- 16 ARANGOITI, EGUN KAOTIKO BATETIK JAIO ZEN IKASTOLA
- 19 ERREPORTAJEA: ELKARTASUN KUTXA BERRIA BIDERAGARRITASUN EKONOMIKORAKO

EDITATZAILIA:
EUSKAL HERRIKO IKASTOLAK
Ikastolen Extea,
Errotazar bidea, 124
20018 DONOSTIA
Tel.: 606 33 41 45

KOORDINATZAILIA:
Zurire Mendizabal
aldizkaria@ehi.ikastola.net

ERREDAKZIOA:
Joxean Agirre eta
Eva Domingo

EUSKARA ZUZENTZAILIA:
Imanol Arfola

DISEINUA ETA WAKETAZIOA:
Txema Garzia Urbina


INPRIMATZAILIA:
GERTU inprimategia.
Oñati. Tel.: 943 78 33 09

URTARRILA 2012

196

IKASTOLA ALDIZKARIA  www.ikastola.net

ELKARRIZKETA



**“ELEBITASUNETIK ELEANIZTASUNERA”
DOKTORE TESIAREN EGILEA**

“Nazioartean ere bakanak dira Eleanitz-English-ek bezala 20 urteko ibilbidea egin duten proiektu berritzaileak”

“DENBORA JOAN
AHALA ELEANITZ-EK
LAU HIZKUNTZAREN
TRATAERA INTEGRATUA
EKARRI ZUEN.
BIDE HORRETATIK,
2002AN IKASTOLEN
HIZKUNTZA
PROIEKTUA AURKEZTU
GENUEN”.





● Ikastoletan ingelesaren ezarpen goiztiarrak eman dituen emaitzak eta beste hizkuntzen trataeran izan duen eragina aztertu ditu Itziar Elorzak berriki EHUko Pedagogia Fakultatean aurkeztu duen “*Elebitasunetik eleaniztasunera*” doktorego tesian, Bikain Cum Laude kalifikazioa eman diote. Itziar Elorzak berak gogoratu digunez, “hemen giltzarria Ikastolen Elkartea bera izan da. Berrikuntza proiektuak ehunka egiten dira, baina 20 urtez luzatzen diren esperientziak oso bakanak dira. Normalean diru-laguntza baten arabekoak izaten dira, legealdi bat irauten dutenak. Hezkuntzan zerbait aldatzeko, ordea, epe luzeagoekin jokatu behar da”. Ikerketa euskaraz egin eta aurkeztu du, baina itzulpenak etorriko dira, nazioartean ere izan dezakeen interesa dela medio. Galdera labur bi aski izan ditu Itziarrek ordubetez bere gaitik atera gabe hizketan aritzeko.

Zein da aurkeztu duzun tesiaren gaia? Gaia Ikastolen Eleanitz-English hezkuntza-berrikuntza proiektua da eta tesiaren helburua hau da: Ikastolen Elkartek elebitasunetik eleaniztasunera egindako 20 urteko ibilbidean, Eleanitz-English proiektuaren oinarriak, bilakaera eta ekarpenak jasotzea. Horretarako bi aztergai nagusi landu ditut. Batetik, 20 urte hauetako ikasleen emaitzen ebaluazio longitudinalaren emaitzak bildu eta aztertu ditut. Bestetik, egitasmoak garatutako hezkuntza-berrikuntzarako eredu sistemikoa ikertu dut; proiektuaren osagai nagusiak azaldu eta haren arrakastarako giltzarri izan diren ezaugarriak azaleratu ditut.

Eleanitz-English hezkuntza berrikuntza proiektua dela diozu. Zertan datza berrikuntza? Gaur egun ikastoletan bederen oso normalizat jotzen dugu ingelesa 4 urterekin lantzen hastea, baina orain 20 urte Xabier Garagorrik bere luzeko ikuspegiarekin eta HH-ren berrikuntzaren barruan aukera hori planteatu zue-nean oso gauza apurtzailea izan zen, eta kezka ere eragin zituela esango nuke. “Haurtxoa” proposamena orduan plazaratu genuen, eta horrekin lotuta hasi ginen modu esperimentalean Eleanitz-English proiektuarekin lanean. Eragile asko elkartu ziren, beraz, Hezkuntzaren Erreforma ere parean egokitu baitziztaigun. Esan dudan bezala, kezka eragin zituen inguruan. Ez gurasoen artean, gurasoek sinesten baitute ikastolan, baina bai irakasleen artean, esate baterako. Hirugarren hizkuntza bat 4 urterekin sartzea ez ote zen euskararen eta garapen kognitiboaren kaltetan izango. Elebitasunarekin garai batean sortu ziren kezka bertsuak sortu ziren Eleanitzekin.

Zalantza eta kezka horiek ikusita, emaitzei zorrotz begiratzen hasiko zineten seguru asko. Ez emaitzei bakarrik; material berriak egin edo irakasleak prestatzeko orduan ere arreta berezia jarri genuen. Hamabi ikastola sartu ziren hasierako esperimentazio taldean eta ikastola horietako irakasle eta zuzendariekin batera jorratzen joan ziren egitasmoaren ildoak. Berehala izan genuen kanpoko ebaluazio talde baten laguntza ere, EHUko irakasle talde bat izan baitugu bidelagun hogei urteko ibilbidean emaitzak neurtzeko orduan. Ingelesaren emaitzak bakarrik ez, euskararen, gaztelanian eta ikaslearen garapen kognitiboan lortzen genituenak ere neurtzen zituzten. Horretarako 4 urterekin ingelesa ikasten hasi zirenekin batean 8 urterekin hasitakoak hartu, eta 16 urte bitarteko jarraipena egin genien. Kanpoko ebaluazio lan horiek 2003an bukatu ziren. Geroztik, Ikastolen Elkartek berak eratu zuen ebaluazio zerbitzua, eta 2010 arteko datuak erabili ahal izan ditut. Ebaluazio horien emaitzak sistematizatu, marko akademiko batean kokatu, nazioartean eman diren ikuspegi teorikoekin lotu eta ondorioak ateratzen saiatu naiz.

Ikasleen ebaluazioa da, diozunez, ikerketaren ardatzetako bat, baina proiektuak bazituen beste zenbait alderdi ere, hala nola, kudeaketa eredu, materialgintza eta irakasleen formazioa. Garai hartan dena zen berria eta dena zegoen egiteko. Ez

▲ genekien 4 urteko ume bati atzerriko hizkuntza bat nola erakutsi behar zitzaion; ez genuen materialik, ez genuen irakaslerik eta ez genuen baliabide ekonomikorik ere. Eleanitz oso berezia izan da alde horretatik. Tesi honen bigarren izenburuak ere, “*Ikastolen Eleanitz-English hezkuntza berrikuntza proiektua, oinarriak, bilakaera eta ekarpenak (1991-2010)*”, horixe adierazi nahi du, hezkuntzari osoki eragin ziola. Eleanitz ez da izan aparte funtzionatu duen proiektu bat; ingelesa lantzeko bidea egin genuen, baina aldi berean beste bi hizkuntzen trataera ere aldatu zen, eta denbora joan ahala Eleanitzek lau hizkuntzaren trataera integratua ekarri zuen. Bide horretatik, 2002an Ikastolen Hizkuntza Proiektua aurkeztu genuen ondoren, lau hizkuntzatan lanean ari ziren irakasleak eta Euskaraz Bizikoak elkarrekin lanean aritzeko markoa.

Orain 20 urte hizkuntzak ikasgai akademikoak ziren, ikasi egiten ziren gero erabiliko zirelakoan. Zertan zen ezberdina zuen ikuspegia? Garai hartan 12 urterekin hasten ziren gehienak ingelesa ikasten. Euskara eta gaztelania ere oso modu klasikoan erakusten ziren. Haustura nabarmena eman genuen eta ez ingelesa erakusteko bakarrik, euskara bera ere bide beretik hasi bainekin lantzen. Axelko, Otso-ko eta Beleko horren adibide dira. Aldaketaren mamia esaldi batean laburbildu behar banu, zera esango nuke, hala nola, hizkuntzak ez direla lehendabizi ikasten gero erabiltzeko, erabiliz ikasten direla baizik.

Hizkuntza bat erabiliz ikasten bada, zertan darabilte adin horretako haurrek ingelesa? Oso garbi genuen eskolako testuinguruan erabili behar zutela, umee- gertuko duten testuingurua horixe delako. Txikiak diren bitartean jolasak, ipuinak eta kantak ikasi beharko dituzte ingelesez eta gero hasiko dira arloetako edu-

kiak lantzen, Gizarte Zientzietan SSLIC esperientzian egin dugun bezala.

Zein dira zure lanerako erabili dituzun hipotesi nagusiak? Abiapuntu gisa erabili genuen hipotesia bera da lehena: ingeles goiztiarrak ez diola kalterik eragiten euskararen eta gaztelaniaren lanketari eta ezta ikaslearen garapen kognitiboari ere eta, adin horrekin hasita, ingeles gehiago ikasten dutela. Kontuan izan behar da maila akademikoan gaur eleaniztasunaren inguruan esparru zientifiko berri bat diseinatzen ari direla, hainbat hizkuntzaren arteko elkarrreragina aztertzen ari dena. Hizkuntzalaritza aplikatuko esparrua dela esaten da, eta diziplina ezberdin askok hartzen dute parte ikerketa horietan. Esparru horren inguruko erreferentziak bildu ditut eta, berriro ere esaldi batera laburtzekotan, esango nuke eleaniztasuna ez dela hiru edo lau hizkuntzaren batura, hiztun eleanitzak hizkuntza berriak ikasteko elebarrak ez dituen gaitasunak dituela. Ikuspegi honen argitara aztertu ditut gure ibil-

bidearen datuak eta frogatu dut, esate baterako, hiru hizkuntzetako emaitzek lotura estua dutela, hala nola, ingelesean aurreratzen duenak beste bi hizkuntzetan ere aurreratzen duela. Jatorrizko hizkuntzaren araberako azterketak ere egin ditut, ikasleen datu horiek eskura nituelako, eta eleaniztasun gehigarriaren teoria frogatu dugu



ELK. ^{IK2} ITZIARELORZA



ITZIAR ELORZAK AZAROAREN 18AN AURKEZTU ZUEN DOKTORE TESIA DONOSTIAKO FILOSOFIA ETA HEZKUNTZA ZIENTZIA FAKULTATEAN. BIKAIN CUM LAUDE, KALIFIKAZIORIK ONENA, LORTU ZUELARIK.

beste behin, alegia, baldintza onetan sartzen bada, hirugarren hizkuntza sartzeak mesede egiten diela aurreko bi hizkuntzei. Beste modu batera esanda, ume euskaldunak gaztelania gehiago ikasten du ingelesa ikasiz eta ume erdaldunak euskara gehiago ingelesa landuz.

Gurea, dena den, euskararen ardaztutako eleaniztasun eredia da. Nola gauzatzen da oreka hori? Hizkuntza bakoitzaren trataera oso lotua dago komunikazio testuinguruari. Euskal Herrian oso garbi dugu eskolaren egiteko nagusietako bat euskararen biziberritzea dela. Horregatik ematen diogu lehentasuna euskarari. Hori oso ondo definituta dugu Ikastolen Hizkuntz Proiektuan. Euskara da gure komunikazio hizkuntza eta irakaskuntza hizkuntza nagusia, eta gelatik kanpo ere hainbat esparrutan gauzatzen dugu hori.

Hogei urteotan garatu den Eleanitz-English proiektuak eraginik izan al du inguruko sareetan? Ni seguru nago baietz. Ingelesaren irakaskuntzak prestigioa du gaur gure gizartean eta irakaskuntza goiztiarra orokortu egin da. Orokortzen ari da, bai, baina ez dut uste gure proiektuak dituen kalitate bermea eta euskarari zor diogun lehentasuna kontuan hartuta orokortzen ari denik. Gure ikasleak emaitza onak lortzen ari badira, ez da 4 urterekin hasi zirelako, horrek laguntzen badu ere, beste aldagai batzuegatik baizik. Horren harira, materialgintza, irakasleen prestakuntza eta ebaluazio eraikitzaileak egitea nabarmenduko nituzke. Gurea sinergia handiak sortarazi dituen proiektua izan da. Hegoaldean ikastola guztiak daude proiektuan sartuta, bakarren bat izan ezik. Euskarari zor zaion lehentasunari buruz, bestalde, esan behar da gaur egungo gizartean ezin ibil gaitzkeela euskararekiko jarrera defentsibekin, euskaraz bizi garelako eta euskaraz erakusten dugulako beste hizkun-

tzak hobeto ikasiko ditugula erakutsi behar dugu. Beste hizkuntzak ikasteko gaitasun gehiago dugula, hain zuzen ere, euskaldun eta eleaniztun garelako.

Orain 20 urte zer ardura zenituen Ikastolen Elkartean? Euskal Filologia egin nuen eta Genevan hizkuntzen pedagogian eta psikolinguistikan formatu nintzen. Etorri eta Arabako Ikastolen Elkartean hartu ninduten Pedagogi koordinatzaile lanerako. Batez ere Arabar Errioxako ikastolekin aritu nintzen lanean eta bost urtera, Erreforma zela-eta, Gipuzkoako Elkartean materialgintza prozesua martxan jarri zutenean Euskarako proiektuan hasi nintzen; gero etorri zen ingelesaren proiektua eta ondoren gaztelaniarena. Orain frantsesarekin gabiltza 2006an hasita. 47 ikastola daude esperimentazio fasean sartuta.

Nork sinetsi zuen gehien Eleanitz-English proiektuan? Oso proposamen ausarta zen. Ikastolen Elkartean bere egin zuen eta babes osoa eman zion. Horrekin batera, 12 ikastola pilotuen atxikimendua eta bertako irakasleen itzelezko lana azpimarratzekoa da ere. Tesi hau egiteko proposamena ere Ikastolen Elkartetik etorri zitzaidan 2005ean. Nire interesa ere bazegoen, noski, baina Elkarteko ekimen gisa planteatu zen. Bi urteko oporrak eman nituen tesiarekin lanean, baina ikusirik ez nuela behar bezala aurreratzen iaz lau hilabete hartu behar izan nituen bukatzeko. Orain lanari begira jarri eta neu ere harritu egiten naiz egindakoarekin. Bi zuzendari izan ditut. Xabier Garagorrik lagundu dit bereziki tesiaren parte kualitatiboan eta Juan Etxeberriak kuantitatiboan, Estatistikan aditua delako eta gurekin urtetan ebaluazio taldeko kide izan delako. Ikastolen Elkartea atzean egonda eta neure gogoz ere bai, tesiak euskaraz behar zuen eta halaxe egin dut. Itzulpena nola egin daitekeen pentsatzen ari gara, nazioartean interesgarria izan daitekeelako, hogei urteko ibilbidea egin duten proiektu berritzaileak oso bakanak baitira. •

“BESTE HIZKUNTZAK IKASTEKO GAITASUN GEHIAGO DUGULA, HAIN ZUZEN ERE, EUSKALDUN ETA ELEANIZTUN GARELAKO”.

BEHEAN, ITZIARREN GURASOAK, XABIER GARAGORRI ETA JUANITO ETXEBERRIA, TESIAREN ZUZENDARIAK, ETXEOAK, LANKIDEAK ETA LAGUNAK FAKULTATETIK IRTEANDAOKOAN EGINDAKO FAMILIA ARGAZKIAN.



ELEANITZ, UNA EXPERIENCIA INÉDITA

Itziar Elorza, ex responsable del Proyecto Lingüístico de las Ikastolas, acaba de defender su tesis doctoral que analiza el desarrollo y los resultados de Eleanitz-English a lo largo de sus veinte años, un proyecto innovador no sólo porque introducía el aprendizaje del inglés a los 4 años sino porque remodeló la metodología de su enseñanza, la preparación de los profesores y la evaluación de los resultados. El lanzamiento de este proyecto coincidió con la aplicación de la LOGSE y ayudó a impulsar la renovación de los materiales didácticos en las ikastolas y el aprendizaje de las otras dos lenguas en el aula. Itziar Elorza deja probado que un avance en el inglés acarrea, si se trabaja con garantías, avances en el desarrollo del euskara y del castellano. Afirma que el desarrollo de un proyecto tan innovador a lo largo de veinte años sólo ha sido posible gracias a la estructura de Ikastolen Elkartea, “porque programas innovadores los hay a cientos, pero dependen de una subvención y duran lo que dura un gobierno”. Eleanitz es, según ella, una experiencia inédita a nivel internacional, por lo que están barajando la posibilidad de una traducción.

ELEANITZ, UNE EXPÉRIENCE INÉDITE

Itziar Elorza, ancienne responsable du Projet Linguistique des ikastola, a présenté sa thèse doctorale sur le développement et les résultats de Eleanitz-English au bout de vingt ans. Projet novateur non seulement de part l'introduction de l'apprentissage de l'anglais pour les 4 ans mais aussi pour la méthodologie de son enseignement, la formation des enseignants et l'évaluation des résultats. Ce projet a démarré en même temps que l'application de la LOGSE et permet le renouvellement du matériel didactique et l'apprentissage des deux autres langues en classe. Itziar Elorza montre que des progrès en anglais entraînent des progrès en euskara et castillan. Selon elle ce projet a pu être mis en place et développé grâce à Ikastolen Elkartea, “car les programmes novateurs sont légion mais ils dépendent des subventions et leur durée de vie est celle d'un gouvernement”. Eleanitz est, selon elle, une expérience inédite au niveau international et une traduction est même envisagée.

araba:



ORIENTAZIO AZOKA ANTOLATU DUTE BIGARREN URTEZ LAUDION

Ikasketak ondo aukeratzeko bitarteko bat gehiago izan nahi du

Bizitzako bidegurutzetarako garantzizuenetakoa da Batxilergoa bukatu eta ikasketak aukeratzeko, eta aukera hori ahalik eta zuzenena izateko ezinbestekoa da informazioa. Horretarako antolatu zuen Laudio Ikastolak bigarren aldiz Orientazio Azoka. Bertan unibertsitate pribatuen eskaintza eta Lanbide Heziketakoa eman zuten, EHUK bere azoka propioa eratzeko duenez, ikasleak hara joaten direlako. Ikastolako guraso eta ikasleei zabalik egoteaz gain, Laudioko bertako edota inguruko herrietako jendearentzat ere zabalik egon zen.



Bigarren aldiz antolatu du Laudio ikastolak Orientazio Azoka, Batxilergoko bi mailatan dauden ikasleei Unibertsitateaz eta Lanbide Heziketako goi zikloen inguruan informazioa emateko. Deustuko Unibertsitatea, Ikastolen Elkarte Lanbide Heziketa, Bilboko Andra Mari Magisteritza Eskola, Zaraobe (goi mailako zikloak ematen dituen Amurrioko institutua), Mondragon

Unibertsitatea eta Udal Lanbide Heziketa Eskola gonbidatzen dituzte.

"EHUK ere ekintza pila bat antolatzen du beren eskaintza ezagutzera emateko eta gu geu joan ohi gara informazioa bila. Horregatik ez dugu gonbidatzen azokara", gogoratu du Leire Burdain Orientazio arduradunak.

"Aurretik, noski, ikasle bakoitzarekin lan bat egiten da, zer zalantza dituzten ikusten dugu eta zerrenda

antzeko bat egiten da antolatzen diren mahai horietan galderak egin ditzaten. Azoka hau irekia da eta gurasoak ere gonbidatzen ditugu. Kasu batzuetan gurasoak bere semearekin edo alabarekin etortzen dira, baina beste batzuetan ikasleak beren kabuz hurbiltzen dira mahaietara”, erantsi du Leirek.

Teresa Basterretxea eta **Jon Muñoz** tutoreen ustez, ikasle batetik bestera alde handia dago, eta modak eta, batez ere, lan merkatuak agintzen dute ikasketak aukeratzeko orduan. Badago multzo bat magisteritzara jotzen duena; azken urteotan hau egin dutenen kopuruak gora egin du. Badaude batzuk txikitandik sendagile edo erizain izan nahi dutenak. Ingeniaritzak behera egin du pitin bat. Bioteknologia modan dago. Beti daude IVEF/SHEE egitera animatzen direnak. Letretan, Itzulpen gintzan beti ikasleak tantaka joan izan dira, Kazetaritzak hor jarraitzen du eta Filologiak ere bai, nahiz eta azken urteetan nabarmen jaitsi den. Psikologoren bat edo pedagogoren bat ateratzen da noizbehinka. Enpresa ikasketak, ADE, Zuzenbidea... Abanikoa oso zabala da. “Lehen zaletasunak gehiago agintzen zuen. Orain



ikasleak praktikoagoak dira, lana aurkitzea zailagoa delako beharbada. Gurasoek ere praktikotasunari begiratzen diote”, esan du Teresak.

Lana aurkitzeko orduan gero eta gehiago gertatzen

da ikasketak bukatzeaz gainera atzerriko egonaldiek, hizkuntzak menderatzeak, titulazio bikoitzak eta gisako merituak kontuan hartzen direla, eta hori horrela izanik, unibertsitate pribatu batzuk eskaintza horiek

egiten ari dira. “Lanbide Heziketak berak ere atzerriko egonaldiak eta praktikak egiteko aukerak eskaintzen ditu. Ikasketak programaz gainera beste zenbait osagarri eskaintzen dituzte”, gogoratu du Leirek.

BATXILERGO IKASLEAK IKASTOLAKO ATARIAN. AURREAN EZKERRETIK HASITA, JON MUÑOZ ETA TERESA BASTERRETXEA TUTOREAK ETA, ERDIAN, LEIRE BURDIN ORIENTAZIO ARDURADUNA. ABEINDUAREN 1EAN ANTOLATU ZUTEN 2. ORIENTAZIO AZOKA. AHALIK ETA INFORMAZIO ZUZENENA IKASLEEI ETA FAMILIEI BIDERATZEKO ASMOZ.

Laudio Ikastolatik gehiengo unibertsitatera joaten da ikasketak egitera, baina, Leirek gogoratu duenez, gero eta gehiago dira Lanbide Heziketara bideratzen hasi direnak. “Oraindik bakanak dira, baina gero eta gehiago dira unibertsitatera joateko aukera izanik ere Lanbide Heziketara joaten direnak. Lehen ez bezala, orain badira ikasleak Lanbide Heziketaren aukera oso garbi dutenak. Horiek lana nahikoa erraz aurkitzen dute gustuko ikasketak egin eta gero, eta guk zoriotsu ikusi ditugu ondoren”, dio Jon Muñozek. Behin ikastolako etapa amaituta ikasketak egitera kanpora ateratzen diren ikasleek lotura handia dute ikastolarekiko. “Eguberrian askotan etortzen dira, tutoreekin hitz egiten dute, baina ez dugu beren jarraipen zehatzik egiten. Juan Karlos Bermejo zuzendariak badu asmoa jarraipen hori egiten hasteko, oso datu jakingarriak aterako lirakeelako; baina lan handi samarra da”, gogoratu du Leirek. •



“Aurretik, noski, ikasle bakoitzarekin lan bat egiten da, zer zalantza dituzten ikusten dugu eta zerrenda antzeko bat egiten da antolatzen diren mahai horietan galderak egin ditzaten”.

Informaziorako hiru iturri

Azokaren helburua ikasleei dauden aukeren berri ematea da, baina ez da iturri bakarra, informazio hori bera ikastolako gela birtualean, Moodle-n, eskegi baitute eta ikastolako Orientazio Txokoa ere bai. “Gure helburua ikasleari ahalik eta informazio osatuena ematea da, baina aukeraketa eurek egin behar dute. Tutoreak dira ikaslea ondoen ezagutzen dutenak, eta eurak dira aurrez aurreko saioetan laguntzeko aukera gehiena dutenak. Ni, Orientazio arduradun gisa, bitartekoak jartzen saiatzen naiz”, dio Leirek. • Aurtengo azoka zabalik egon zen bitartean hitzaldiak antolatu zituzten ondoko areto batean. “Gonbidatutako erakunde bakoitzari 40 minutu eman genizkion hitzaldi formatuan bere aukeren berri eman zezan. Ikasle edo guraso bakoitzak aukeratzeko zuzen hitzaldi interesatzen zitzaizkion. Iaz guraso gutxi ikusi genuen mahaietan eta hitzaldietan, baina aurten gehiago animatu dira”, esan zuen Leirek. •

UNA FERIA DE OFERTAS EDUCATIVAS

Laudio ikastola organizó el 16 de diciembre la segunda edición de la Orientazio Azoka, en la que expusieron las ofertas de las universidades privadas y de la FP. La UPV no estuvo presente, puesto que organiza su propia feria a la que acuden los alumnos de la ikastola. En esta segunda edición de la feria estuvieron presentes las

universidades de Deusto y de Mondragón, la Escuela de Magisterio de Bilbo, Zaraobe (Ciclos de FP del Instituto de Amurrio) y la Formación Profesional de Ikastolen Elkartea. Se trata de un instrumento más que la ikastola pone en manos de familias y alumnado del Bachillerato para que puedan elegir sus estudios con conocimiento de causa.

UNE FOIRE D'OFFRES D'ENSEIGNEMENTS

L'ikastola Laudio organise le 16 décembre la seconde édition de l'Orientazio Azoka où seront présentées les offres des universités privées et de la Formation Professionnelle. L'Université du Pays Basque ne sera pas présente car elle organisera sa propre journée où seront accueillis les élèves de l'ikastola. Seront

présentes les Universités de Deusto et Mondragón, l'Ecole de formation des enseignants de Bilbo, Zaraobe (FP du lycée d'Amurrio) et la Formation Professionnelle de Ikastolen Elkartea. Il s'agit d'un outil supplémentaire que l'ikastola met à la disposition des parents et élèves pour l'aide à l'orientation.



GARBERA
ARRASATE



En los artículos señalizados



IBAIZABAL, GERO ETA ARGI GEHIAGO IKUSTEN DUEN IKASTOLA

Hamabi urteren buruan 170 ikasle ditu Batxilergoan eta 50 HHko goi zikloan

Orain hamabi urte sortu zen Ibaizabal Ikastola, eskualdeko ikastolei Batxilergoa eta Lanbide Heziketako zikloak eskaintzeko helburuarekin. Urte gogorak izan ditu ekonomia aldetik eta, oraindik handicap batzuk baditu ere (HHko goi zikloaren kontzertazio falta), burua altxatzen ari da. 170 ikasle ditu Batxilergoan eta 50 HHko goi zikloan. Ibilbide honetan langileek eta gurasoek erakutsi duten inplikazioa nabarmendu nahi izan dute Rosa Elizburu eta Idurre Maortua arduradunek.

Irakasleen eta gurasoen inplikazioa ezinbestekoa izan da orain hamabi urte eskualdeko ikastolek (Kurutzia, Txinxiiri, Andra Mari, R.M. Azkue eta Zubi Zahar izan ziren sortzaileak) Durangoko Tabira auzoan sortu zuten Ibaizabal ikastolak arnasbidea lortzeko. **“Irakasleen jarrera eredugarria da. Lan hitzarmenak finkatutakoa baino %16 ordu gehiago sartzen dituzte eta horri esker urteko 100.000 euro aurreratzen ditugu. Norbaitek pentsa dezake ez**

dela kopuru izugarria, baina guk Administrazioetik 600.000 euro jasotzen ditugula kontuan izanda, bada zerbait”, hasi zen ikastolaren egoerari buruz hizketan **Idurre Maortua** zuzendaria.

“Gurasoen jarrera ere aipatu beharrekoa da. Bakoitzak egun bat eskaintzen dio ikastolari, konponketak eta margotze lanak egiteko. Eta urtero Durangoko jaietan txosna bat edukitzen dute zabalik. Egiteko hauetan parte hartzen duten ikasleak ere gero eta gehiago dira.

Bidenabar, gelako gurasoek elkar ezagutzeko bidea ere bada”, erantsi zuen **Rosa Elizburuk**, HHko goi zikloko arduradunak.

170 IKASLE BATXILERGOAN

Batxilergoan 170 ikasle dituzte, bi modalitatetan banatuta (giza-gizarte, zientifiko-teknologikoa). Ia denak bazkide diren ikastoletatik datoz. HHko goi zikloan, aldiz, jatorri zabalagoa dute. **“HHko goi ziklora eskualde osotik datoz, eta erdiak inguru heldu samarrak dira, lan**

munduan ibilbidea egin eta gero HHn lan egitea erabaki dutenak, hain juxtu ere. Azken urteotan lan merkatuan sarbidea izan duen profesioa izan da, haur eskola asko sortu direlako batik bat. Maila bakoitzean 25 ikasle ditugu, eta dagoeneko bosgarren promozioa ari da ikasketak egiten”, dio Rosa Elizburuk.

Hezkuntza ez arautuan (Hobetuz ikastaroak), bestalde, IKTek irakaskuntzan duten aplikazioa da Ibaizabalen espezializazioa. **“Inguruetako**

ikastetxeetako irakasle eta hezitzaileak etortzen dira ikastaroetara. Lantzen dugun gaietako bat, esate baterako, IKTek HHn edo LHn izan ditzaketen aplikazioak dira, eta etapa horietarako materiala sortzen ere ari gara. Horretaz gainera, HHrako irakasleei nahiz gurasoei zuzendutako masaje ikastaroak ere ematen ditugu, eta ipuin kontaketearekin ere gauza bera egiten dugu. Psikomotrizitateari buruzko ikastaroak ere eskaintzen ditugu”, gogoratu du Idurre Maortua.

GOI ZIKLOA KONTZERTURIK GABE

Ibaizabal Ikastola orain hamaika urte sortu zen, eta hasierako egoera ekonomiko larria gainditzen ari bada ere, zama bat darama oraindik gainean: HHko goi zikloa emateko kontzertaziorik eza. Ez da normala, baina bosgarren promozioa ikasketak egiten ari den arren, kontzertaziorik gabe jarraitzen dute. "Urteko 120.000 euroko zuloa suposatzen du horrek, eta gu bezalako ikastola txiki batentzat izugarria da kopuru hori. Horregatik beste diru sarrera batzuk bilatzen ahalegintzen gara. Horretarako daukagu martxan 'Errota sekzioa'; atal honek gimnasioa, ostalua, aterpea eta taberna hartzen ditu. Jarduera guztiak euskaraz eskaintzen dira, eta orotara urtean 70.000 €ko etekina ematen diote ikastolari" gogoratu du Idurrek.

AMETSAK ERE BAI

"Gure egoera ekonomikoa ez da larria. Egia da 900.000 euroko zorra dugula, baina aipatu dugun langile eta gurasoen inplikazioari esker, burua altxatzen hasita gaude eta eraikin berri batekin amets egiten ere hasi gara. Ikastola hau ez dago 200 ikasletik gora edukitzeko prestatuta. Oso estu gaude,



eta gure ikastolan bazkideak handitzen ari direnez, badakigu aurki Batxilergoan laugarren gela bat zabaldu beharko dugula. Inbertsionarako diru-laguntza eta goi zikloaren kontzertazioa lortuko bagenitu, eraikin berria bideragarria dela ikusten dugu. Hala ere, bi baldintza horiek ez daude gure esku, Administrazioarenean baizik. Hitzez bi baldintzak agindu dizkigu. Eraikina ez da berria izango erabat; gaurkoari gehituko eraikina izango litzateke. Horrela, beste zortzi gela lortuko genituzke. Epe laburrera nahikoa gure espazio berri honekin. Ikastolak 17.000 metro koadro lur ditu inguruan.

"Irakasleen jarrera eredugarria da. Lan hitzarmenak finkatutakoa baino %16 ordu gehiago sartzen dituzte eta horri esker urteko 100.000 euro aurreratzen ditugu.



IBAIZABAL IKASTOLARA IRISTEAN IRAKASLE KLAUSTRU OSOAREKIN AURKITU GINEN ATARIAN. KEPA ONAINDIA LANKIDE OHIARI, ETA BETIKO LAGUNARI, ESKER ONEKO OPARTOXO EMATEN ARI ZIREN UNEAN, HAIN ZUZEN ERE. ARGAZKIEKIN IKASLEAK GELA EZBERDINETAN; ETA, ROSA ELIZBURU, HHKO GOI ZIKLOKO ARDURADUNA ETA IDURRE MAORTUA, ZUZENDARIA DITUGU.

Erdiak salduta ditu, baina %15 bakarrik dugu kobratuta; gainontzekoa kobratzeko etxeak egiten hasi beharko lukete eta horretarako ere itxoin egin beharko dugu. Orain urte batzuk dena lotuta genuela pentsatzen genuen; zailtasunak, ordea, aldapa gora jarri zaizkigu, baina ilusioarekin buru-belarri jarraitzen dugu lanean", gogoratu du Idurrek.

Beste erronka batzuk ere badituzte: Batxilergo eleanitza eskaintzeko pausoak ematen ari dira eta EFQM kudeaketa eredua ezartzen hasita daude, bi aipatzearren.

Ikastola txikia izaki, badu bere izaera edo estilo bat ere, eta irakasleen eta ikasleen arteko harreman estua izango litzateke ezaugarri nagusia. Arratsaldeko saioak eskaintzen dira, esate baterako, azterketa garaian geratu nahi duten ikasleentzat. •



MÁS LUCES QUE SOMBRAS

Ibaizabal de Durango nació hace 12 años para ofertar el Bachillerato y ciclos de FP a los alumnos de las ikastolas de la comarca. Tiene en la actualidad 170 alumnos en el Bachillerato y 50 en el ciclo formativo de Técnico de Educación Infantil. Ha logrado superar las dificultades económicas gracias a la implicación de los profesores que decidieron trabajar

un %16 de horas más que el establecido en el convenio, y la colaboración de los padres que se encargan del mantenimiento. Pero también tiene sus sombras, como la falta de concertación del ciclo de formación. Rosa Elizburu e Idurre Maortua, responsables del centro, hacen balance de los logros y nos hablan de los retos del futuro.


PLUS DE POINTS POSITIFS QUE NÉGATIFS

L'ikastola Ibaizabal de Durango est née il y a 12 ans et propose le baccalauréat et la formation professionnelle. Elle compte aujourd'hui 170 élèves en bac et 50 en formation professionnelle Technique de l'Enseignement Primaire. Elle a réussi à face faire aux difficultés économiques grâce à l'implication des parents qui

travaillent 16% de plus que la convention et à la participation des parents qui se chargent de l'entretien. Mais il y a aussi des points noirs comme le manque de convention pour le cycle de formation. Rosa Elizburu e Idurre Maortua, responsables du centre, reviennent sur les succès et les défis futurs de l'ikastola.



gi puzkoa:



HHko HAMAR GELA BERRI EGURREZKO ERAIKINEAN

Laskorain, Tolosan ikasle gehien duen ikastetxea

Tolosako umeen erdiak HHn eskolaratzen ditu Laskorain Ikastolak eta portzentajea hazi egin daiteke etorkizunean. Laugarren lerroa zabaldu zutenetik espazioak eraldatzen ari dira. Urrian inauguratu zuten HHko hamar gela berri dituen egurrezko eraikina. 2013an Kilometroak antolatuko dituzte.

Atsedenik gabe hazten ari den ikastola da Laskorain. 0-2 urteko geletan matrikulazioaren erdiari ezezkoa esaten diote. Hala ere, Tolosako umeen erdia ikastolan matrikulatzen da dagoeneko. 1.480 ikasle dituzte. "Hiru lerroko ikastola izaten jarraitzeko

aukera genuen; lasaiago biziko ginen. Ez genuen egokitzeko hainbeste buruhauste izango, baina hiru urtetik gora etortzen ziren matrikula guztiak onartu behar genituela erabaki genuen, eta horretarako laugarren lerroa zabaldu behar zen. Laugarren lerro horrek

egokitzapen handiak egitera behartu gaitu, eta urrian Sakramentinoen eremuan inauguratu genuen eraikin berria da horren froga argia", dio Iñaki Olaetxea kudeatzaileak.

Sakramentinoen komentaren zati nagusia erosi zuten iazko ikasturtean hiruzpalau

urteko negoziazioen buruan. "Alokairuan egin ditugu hemen urteak eta urteak, eta inbertsioak egiteko oztopo handia zen hori. Erosi orduko hasi ginen Haur Hezkuntzarako hamar gela berri ateratzeko eraikin berria diseinatzen. Ez da osorik berria. Eraikin zaharraren zati bat berritu,

pasillo bat erantsi, egurrekin estali eta horren kontra egurrezko beste erakin bat altxatu dugu", erantsi du.

"Gurasoz eta langilez osatutako Batzorde Tekniko-Ekonomikoa deitzen dioten taldea izan da negoziazioak bideratu eta eraikinaren proiektua gauzatu duena. Arkitekto, aparejadore, ingeniari, abokatu eta ekonomistak daude taldean. Badira beste batzorde batzuk ere, hala nola, Merkatu Txikiaren batzordea, Eskola Kirolarena edo udalekuez eta aisialdiaz arduratzen dena, baina azken lau urte hauetan teknikarien talde horrek sekulako protagonismoa izan du. Gurrutxaga aita-alaba arkitektoek Ander Auzmendirekin batera diseinatu zuten eraikin berria, eta Eneko Iturbe

IKUSGARRIA GELDITU DA SAKRAMENTINOETAKO GUNEA. ERAIKIN BERRIA NATURALA DA. ARINA, IRAUNKORRA. ISOLATZE ONA DU. MUNTATIA ERABAZTEKO EDERRA ETA GOXOA. BEHEKO ARGAZKIAN IÑAKI OLAETXEAK, JOHAN OIZ ETA JONE URTEAGA, LASKORAIN IKASTOLAKO KUDEATZAILAK, LEHENDAKARIA ETA ZUZENDARIA, HURRENEZ HURREN.



aparejadore eta ikasle ohiak eraman du obraren ardura”.

EGURRAREN ALDE

0-8 urte bitarteko ikasleak Sakramentinoen eremuan ditu Laskorain Ikastolak, herriaren erdigunetik gertu; besteak, 18 urte bitartekoak, Usabalen daude bi eraikinetan banatuta. Herriaren erdigunetik hain gertu egoteak abantaila nabarmenak ditu: jangelan, esate baterako, ikasleen laurdena baino gutxiago geratzen da. *“Kopuru horrek gehitzeko joera du, baina oraindik ere gehiengoak etxean bazkaltzen du, eta ohitura horri eutsi egin nahi genioke ahal den neurrian.*

Beste ikastola batzuetako datuei begiratuta, gurean etxean bazkaltzeko joera dagoela nabarmenduko genuke”, komentatu du ikastolako kudeatzaileak.

Eraikin zaharra berritu eta eranskina egiteko orduan egurraren aldeko proposamena egin zuten arkitektoek. *“Ikastola zenbaitetan erabili da dagoeneko egurra, hala nola, Gernikako Seber Altuben, Urruñan eta beste hainbat tokitan. Herbeheretan izan ginen, eta egurrezko ikastetxe asko ikusi genituen. Gauza bera gertatzen omen da Europa Iparraldeko herrietan. Naturala da, arina, iraunkorra, isolatze ona du, muntaia errazekoa*

eta, batez ere, ederra eta goxoa. Konbentzitu egin gintuzten”, dio Olaetxeak. Aipagarria ere bada, zortzi hilabete bakarrik behar izan zituztela eraikina altxatzeko.

LAUGARREN LERROA

Laugarren lerroa LHraino iritsi bada ere, ez die oraindik Hezkuntza Sailak onartu. *“Hitzez behin eta berriz agindu digute onarpena, baina finantziarioa ikastolak hartzen du bere gain. Guk aurten, esate baterako, 3 urteko 108 ikasle ditugu; gela bakoitzeko 27 ume. Tolosako beste ikastetxeetan, berriz, askoz ume gutxiago daude gelako, eta guraso askorentzat oso*

“Laugarren lerro horrek egokitzapen handiak egitera behartu gaitu, eta urrian Sakramentinoen eremuan inauguratu genuen erakin berria da horren froga argia”.

“Naturala da, arina, iraunkorra, isolatze ona du, muntaia errazekoa eta, batez ere, ederra eta goxoa. Konbentzitu egin gintuzten”.

zaila da egoera hori ulertzea, laugarren gela hori geure poltsikotik ordaindu beharra, alegia”, erantsi du Olaetxeak.

“Laskorain Ikastolaren aurkezpen txartela dotorea da: Euskaraz Bizi plangintza abian jartzen aitzindari izan zen, Ikastolen Elkarteak martxan dituen proiektu handi guztietan sartuta dago (Eleanitz, Ikasys,...), adimen emozionalaren arloan lan ikusgarria egiten

ari dira, EFQM eremuan zilarrezko eta urrezko Qak dituzte... Ikastolaren lana erabat eraginkorra izan da Tolosako gazteria euskalduntzeko orduan, eta euskararen erabiltzean gaur egun oso emaitza onak ematen ari gara. Egindako azken neurketaren arabera, Batxilergoan %92k erabiltzen du euskara. Ikastola handia da, baina aisialdian lan egiten duen talde indartsu bat dugu”, gogoratu du.

Aipatzekoa da, beste mila zertzeladaren artean, ikastolak duen abesbatza ere. Disko bat osatzeko hiru hilabetetik behin hiru abesti grabatzen ari dira.

UN MATERIAL CÁLIDO Y ACOGEDOR

La ikastola Laskorain se ha decantado por la madera para la construcción de diez aulas de Infantil en el área de los Sacramentinos, porque es, según sus promotores, un material acogedor y cálido, además de duradero, para los pequeños usuarios que desde setiembre acuden a las mismas. Laskorain, que está implantando una cuarta línea, es el centro más grande de Tolosa en alumnado, y el porcentaje podría ir en aumento. Organizarán el Kilometroak del 2013 para responder a las nuevas necesidades.



MATÉRIEL CHAUD ET ACCUEILLANT

L'ikastola Laskorain a choisi le bois pour la construction de dix salles de classe du primaire sur l'aire des Sacramentinos. Ce matériel est chaud et accueillant en plus d'être durable. Laskorain, qui est en train d'ouvrir une quatrième file, est le plus grand centre de Tolosa en nombre d'élèves et le pourcentage va en augmentant. Elle organisera le Kilometroak en 2013 pour faire financièrement face aux travaux.

iparraldean:



EHIK BERE BIGARREN EGOITZA IZANGO DU IPARRALDEAN

Seaskaren bulegoak, formazio gelak eta batzar aretoa izango ditu Kanboko Ikastolen Etxeak

Euskal Herriko Ikastolak europar kooperatibak bi egoitza izango ditu mugaren alde banatan, Donostiakoaz gainera bigarren Ikastolen Etxe bat eraikiko baita Kanbon, gaur Xalbador kolegioa dagoen etxean. Bertan Seaskaren bulegoak, irakasleen formazio gelak eta EHLren zerbitzu batzuk izango dira. Bidenabar, kolegioa ere berrituko dute. Aurrekontua handia da, 5,5 milioi eurokoa. Horietatik hiru milioi Paueko Kontseilu Orokorrek emango ditu. Ikastolen Egoitzak, Seaskako lanak kudeatzen dituen elkarteak 2013ko urte bukaerarako finkatu du lanen amaiera.

Egundaino Seaskaren bulegoak Baionako Le Forum gunean daude alokairuan. Xalbador kolegioak Kanboko "Ene Pentzea" etxean zituen gela zaharrak txikiegi geratu direnez, eraikuntza goitik behera eraberritu eta

bertara etorriko dira Seaskako bulegoak. "Ikastolen Etxea izango du izena, eta EHLren bigarren egoitza izango da; Donostian izango du egoitza bat eta bigarren bat hemen. Seaskako bulegoak eta langileak izango dira

hemen, baina baita kooperatibako langile batzuk ere, hala nola, Xibakoak, Euskaraz Bizikoak edo bertsolaritza ematen dutenak. Herri Urratsen bulegoa ere hemen izango da. Etxearen kontra dagoen erakinean

formazio gelak zabalduko ditugu. Jakina da Seaskako irakasleen formazioa, ikastoletan lan egiteko behar duten trebakuntza, gure gain dagoela, eta horretarako lekua bertan prestatuko dugu. Gela horiek elkartzuz, batzar areto

handi bat prestatzeko aukera ere izango dugu eta seguru gaude noizbait EHIko batzar nagusiak bertan egingo direla", dio **Hur Gorostiagak**, Seaskako zuzendariak, berak orain urte batzuk ikasle gisa kolegioan zela ezagutu zuen

HUR GOROSTIAGA ETA MAITE ANDIAZABAL, ENE PENTZEA ETXE ZAHARRAREN ETA AURREAN, OBRA HANDIAREKIN HASI AURRETIK. SEASKAKO ZUZENDARIAK ETA XALBADOR KOLEGIOKO ZUZENDARIAK, 2013KO URTE BUKAERAKO, ETXE BERRITUAN SARTUKO DIRELA ADIERAZI ZUTEN.

etxeari begira mintzo dela. Ene Pentzeak euskal kutsuko arkitektura du, eta jatorrizko itxurari eutsiko diote.

KOLEGIOA TXIKI

Kolegioak gero eta ikasle kopuru handiagoak ditu eta Ene Pentzean kabitu ezinik zebiltzan. Ezinbestekoa zuten, beraz, irtenbide bat aurkitzea. Gaur barnetegia den eraikina bota eta beste bat egingo dute gela handiagoak lortzeko.

“Kanboko kolegioak hogeita hamar urtez erabili du Ene Pentzea. 1981ean alokatu genuen etxea Xalbador Ikastegia ireki ahal izateko, baina udan beste erabilera batzuk zituenez, ikasturtea bukatu baino lehen gelak hustu eta beste leku batzuetara eraman behar izaten genituen ikasleak, hala nola, Bidartera, Biriatura.... Etxea 1987an erosi genuen. Herri Urratsen lehen edizioa horretarako baliatu zen eta guraso talde batek bere etxebizitzak hipotekatu behar izan zituen maileguak lortzeko. 1990ean handitu egin zen etxea auzolanean, eta orain artean 14 gela genituen hor”, dio **Maite Andiazabal** kolegioko zuzendariak.

Xalbador Seaskaren lehen kolegioa izan zen eta gaur 253 ikasle ditu bertan. (Orotara, 593 ikasle dira Seaskaren hiru kolegioen artean: Ziburuko Piarres Larzabalen, Lartzabaleko

Manex Erdozaintzin eta Kanboko Xalbadarren).

Xalbadarren diren 14 gela horiek prefabrikatuera aldatzen ari dira obrak hasi baino lehen. Lehen fasean Ene Pentzea goitik behera berrituko dute eta aurtengo uda baliatuko dute eremu horretan dagoen lizeoko barnetegia eraberritzeko. Han ezarriko dira kolegioko ikasleak, laborategia, aldagelak; horrez gainera, eremu osoa zaintzen duen atezainaren etxeari ere berritua emango diote. Seaskako gurasa den Eliane Mendiboure arkitektoak gidatuko du proiektua, Ikastolen Egoitza ikastoletako burasok

osatzten duten elkartearen kudeaketarekin.

“Proiektu hau Ipar Euskal Herrian eman den bilakabidearen lekuko ere bada. Orain hogeita hamar urte gurasoek beren etxeak hipotekatu behar izan zituzten Ene Pentzea erosteko eta gaur egun lehen aldiz Kontseilu Orokorretik hiru milioiko finantziazioa lortu dugu” dio, gogoeta gisa, Hur Gorostiagak.

5,5 MILIOI EURO

Seaskak inoiz burutu duen proiekturik handiena da hau. Aurrekontua 5,5 milioi eurokoa du. Horietatik hiru milioi Paueko Kontseilu

Orokorrak emango ditu. Elkartasun Kutxaren eta Seaskaren artean milioi eta erdi euro jarriko dira eta *“falta den milioi euroko diru kopurua eskuratzeko modua erabaki gabe dugu oraindik”*, dio Hur Gorostiagak.

Proiektu handi honen ondoren beste bat etorriko da, lizeo berriarena. Hur Gorostiagak aurreratu digunez, Baionako Bernat Etxeparen ez dute aski lekurik eta Biarritzen lizeoa, Lanbide Heziketako ikastegia eta barnetegia elkartuko dituen proiektua lantzen ari dira. Eta hori gutxi balitz, Seaskaren kolegioak hazten ari direnez,

Etxeparen ere laugarren kolegioa antolatuko dute.

Kanboko Ikastolen Etxea eta kolegio berria bi urtean eraiki ahal izateko plangintza konplexu bat antolatua dute, ikasleak bertan direla egingo baitira lan guztiak. *“Ipar Euskal Herriko neurrian nahikoa erdigunean geratzen da Kanbo, eta Seaskaren bulegoak kokatzeko leku aproposa da. Etxea oso ederra da eta aurrerantzean Seaskaren eta EHI kooperatibaren irudi edo ikur bilakatuko da. Ipar Euskal Herriko 29 ikastolak biltzeko lekua izango da eta tarteka Euskal Herri osoak ere bai”*, erantsi du Hurrek. •

ERAKUNTZA BERRIAREN MAKETA ARGAZKIAN. BEHEAN, EZKERRETIK HASITA, PATRICK MARIANNE, ANDRÉ THILLARD, EGOITZAKO KIDEAK AZALTZEN DIRA. ERDIAN PAXKAL INDO, SEASKAKO LEHENDAKARIA, DUTELA.



“Etxea 1987an erosi genuen. Herri Urratsen lehen edizioa horretarako baliatu zen eta guraso talde batek bere etxebizitzak hipotekatu behar izan zituen maileguak lortzeko”.

“Baionako Bernat Etxeparen ez dute aski lekurik eta Biarritzen lizeoa, Lanbide Heziketako ikastegia eta barnetegia elkartuko dituen proiektua lantzen ari dira”.

UNA SEGUNDA SEDE DE EHI, EN KANBO

Seaska acamente durante estos días las obras de remodelación que convertirán el edificio Ene Pentzea de Kanbo en la sede de las ikastolas de Iparralde, que ahora estaba en Baiona. La sede acogerá asimismo algunos servicios de EHI y se presentará como la segunda Ikastolen Etxea de la cooperativa Euskal Herriko Ikastolak, después de la de Donostia. Las dependencias

del edificio habían quedado pequeñas para acoger a los alumnos del colegio Xalbador, que contará con un nuevo edificio. Es el proyecto de mayor envergadura que Seaska haya emprendido jamás. Su presupuesto es de 5,5 millones de euros, de los que tres vienen del Consejo General.

UN SECOND SIÈGE DE EHI À KANBO

Seaska a entrepris ces derniers jours des travaux de rénovations sur le site Ene Pentzea de Kanbo, site qui accueillera le nouveau siège des ikastola d'Iparralde (actuellement à Baiona). Le siège accueillera quelques services de EHI et sera en quelque sorte la seconde Ikastolen Etxea de la coopérative EHI après celle de Donostia. Les dépendances du

bâtiment étant trop petites pour accueillir des élèves du collège Xalbador, un nouveau bâtiment sera construit. Il s'agit du plus grand projet jamais entrepris par Seaska. Le budget de ce projet est de 5,5 millions d'euros, 3 viennent du Conseil Général.

ZALANTZARIK
GABE
KULTURA

2012
www.ehiar.com

ekar



ARANGOITI, EGUN KAOTIKO BATETIK JAIO ZEN IKASTOLA

Sare sozialak erabiltzen dituzte Irunberrin hezkuntza proiektua kaleratzeko

Irunberriko Arangoiti Ikastola lasaia bezain ederra da. Gezurra dirudi halako eraikin bipila egun kaotiko baten ondorioz jaio zitekeenik. Bertan behera utzi den Nafarroa Oinez bakarra izan da Irunberrikoa, eta ezbehar horrek eragindako elkartasunak bildu zuen dirua. Gaur 60 ume ari dira bertan euskaraz ikasten. IKTen erabilpenaz, helduentzako euskara taldeez, dantza taldeaz eta pedagogia mailan dituzten proiektuez mintzatu zitzaizkigun bisitan joandakoan.

Irunberriko ikastolaren historian badago gau bat oraindik ere gogoratu eta negarra eragiten diena: 2003ko urriaren 19koa. "Bezperan oso eguraldi polita egin zuen, dena kontrolpean genuen, mundu guztia lanerako prest zen, baina goizeko bostetan telefonoak dantzan hasi ziren. Une horretan euria hasi zuen eta batez ere haizea harrotu zen dena txikitu beharrean. Eguraldi txarrak bat baino gehiago izan izan dira ikastolen festetan, baina

halakorik ez dugu inoiz ikusi. Guretzat hil ala biziko eguna zen, ikastola egiteko genuen aukera bakarra, baina berehala ohartu ginen ezin genuela eguraldiaren kontra ezer egin, eta festa bertan behera uztea erabaki genuen. Goizeko zortzietan hasita, irradi bidez bidean zeudenei etxera itzultzeko eskatzen hasi ginen; erabaki horren ondorioz sekulako auto pilaketak sortu ziren bideetan. Zernahi gisaz, okerrago ia zango zen herrira sartu eta atera ezinik

geratzea. Bertan behera utzi den ikastolako jai bakarra izan dela uste dut", hasi da **Nora Uribeetxeberria**, garaiko zuzendari eta gaurko irakaslea.

"Ikastolako webgunean bideo bat daukagu. Hura ikusi eta jendea negarrez hasten da oraindik. Batzuek ez dute ikusi ere egin nahi izaten", erantsi du **Izaskun Aldatz** irakaslea. Goiz horretan bertan Ikastolen Elkarteko arduradunek bilera egin eta elkartasuna adierazteko kontu korrante

batzuen zenbakiak jakinarazi zituzten. "Euskal Telebistak eta Irratiak izan zuten inplikazioa erabakigarria izan zen oso. Euskal Herri osoko jende famatuak utzitako gauzen enkantea ere egin genuen eta enpresa profesional baten bidez emaitza ikusgarriak bildu genituen. Iruñeko peñek ere beren lokalak ireki, egun horretan festak antolatu, eta dirua bidali ziguten. Ikusgarria izan zen hura. Bianako taberna batean sekulako itsulapikoa jarri

zuten eta hura diruz beteta ekarri zuten. Badago oraindik ere laguntza ematen jarraitzen duen jendea. Bildutako dirua nahikoa izan zen erakin berria ordaintzeko", jarraitu du Norak. Hirurogeita hamar ume zituen orduan Arangoitik ikastolen historian ezagutu den eraikin zaharrean; egurrekin berotzen ziren bertako estufak eta itoginetako ura biltzeko zeuden baldeak ikastola txiki horretakoan memorian geratu dira betiko.

IRUNBERRIKO ARANGOITI IKASTOLAN UME GUZTIAK ARI DIRA EUSKAL DANTZA IKASTEN. ORDUTEGIAREN BARNEAN SARTUTA BAITUTE. SOINKETA SAIO MODUAN ERABILTZEN DUTE DANTZA, ETA ONDORIOZ, SEKULAKO IKUSKIZUNAK ANTOLATZEN DITUZTE.



EZKERREKO ARGAZKIAN NORA URIBETXE BERRIA ETA GARAZI LARRAÑAGA, TUTOREA ETA ZUZENDARIA. BEHEAN, MAITE OKZOIDI, TXOMIN HUARTE, NORA URIBETXE BERRIA, DANIEL ABATURREA (IKASTOLAKO LEHENDAKARIA), GORRA DIAZ (UMEA), ELENA BALDA, GARAZI LARRAÑAGA, MIKEL DIAZ (UMEA) ETA IZASKUN ALDÁZ.

emanaldian eta batzuek txupetearekin agertzen dira”, gogoratu du Garazi Larrañagak. Musika lantzeko gai den irakasle bat baino gehiago dago ikastolan. Garazi bera musikaria izan zen irakasle baino lehen.

Irunberriko bizilagunak nekazaritzatik eta industriatik bizi dira, baina baditu gremio bitxiak ere, ardi-moztaileak esate baterako, munduan barrena mugitzen direnak. “Gure guraso bat Espainiako txapelduna da ardiak ileak moztzen”, gogoratu du Danielek.

Ikasturte bukaeran ume guztiak kanpaldira joaten dira elkarrekin: bosgarren eta seigarren mailakoek prestatzen dute, goitik behera, hiru eguneko egitaraua, antolaketarako behar diren telefono deiak eta guzti. Hauek joaten dira lehen egunean kanpaldira, bigarren egunean ‘trepela’k jarraitzen die eta, azken egunean, txiki-txikiak. Iaz Zarautzen izan ziren eta ikasturte honetan Zuhatzara joango dira. •



heldu bildu dira, erdiak inguru gurasoak. Batzuek goizez hartzen dituzte klaseak eta besteek arratsalde. Talde horiek osatzeko orduan ere sare sozialek oso ondo funtzionatu dute”, adierazi du Daniel Abaurrea ikastolako lehendakaria.

Ikastolak dantza taldea du eta ikasle guztiak dira dantzari. Soinketa saio moduan erabiltzen dute dantza, eta ondorioz, herriko jai txikietan (sanisidrotan) sekulako ikuskizuna egiten dute egitarauaren barruan; horrez gainera, herriko jaietan ere hartzen dute parte. Txistulari taldea ere badute. DBH egitera Zangozara joaten diren arren, astean behin Arangoitin elkartzan jarraitzen dute, eta horiek

dira dantza taldearentzat txistua jotzen dutenak. Dantza taldearekin zein txistulariekin inguruko herrietara ere mugitzen dira. “Eguberriak aldean antzerkia eta musika nahasten dituen emanaldi handi bat egiten dugu herriko zineman. 500 bat lagun etortzen dira saioa ikustera eta, azken urteotan, ekitaldiari kutsu modernoa ematen saiatzen ari gara. Iaz, esaterako, 80. hamarkadako musikarekin egin genituen koreografiak. Aurten Txano Gorritxu eta Hamelin ipuinak antzetzuko ditugu musikarekin, eta tartean, Txano Gorritxuren ipuinean esate baterako, Madonnaren kantaren bat sartuko dugu, handienek ez baitute nahi izaten gaurkoa ez den musikarik. Ikasle guztiak hartzen dute parte

50 HELDU EUSKARA IKASTEN

Aurten bete ditu 30 urte ikastolak, eta ikasle ohien umeak hasi dira etortzen. Irunberri 1.300 bizilagun ditu; ikastolak 60 ume eta eskola publikoak 40. “2004an etorri ginen eraikin berrira eta pedagogia alorrean ahalegin izugarria egiten ari gara gozotik. Azken ikasturte hauetan, esate baterako, proiektuen bidez ari gara edukiak lantzen. Ikasleak dira informazioa bildu eta gaia ikertzen dutenak eta, bidenabar, hainbat kompetentzia lantzen dituzte. Txanela proiektua da gure markoa, baina haurren interesguneak erabiltzen ditugu”, dio Txomin Huarte irakasleak.

Gela barruko lanaz gainera, matrikulazio

kanpainari garrantzi handia ematen diote, aurrekontu oso neurtuarekin dabilenez, ume bat edo biren gora beharan kontzertazio bat galtzeko arriskua dutelako. “Teknologia berrien bidez gure lanaren berri gurasoei ailegarazten saiatzen gara: webgunea dugu martxan eta facebook-a ere bai, eta batez ere blogak erabiltzen ditugu gure hezkuntza proiektua kaleratzeko”, dio Garazi Larrañaga zuzendariak.

Arangoiti Ikastolak helduentzako euskarazko klaseak antolatzen ditu AEKren laguntzarekin. “Herrian ez zen euskara ikasteko talderik osatzen. Aurten ikastolan bertan taldeak osatzeko deialdia egin dugu eta, zorionez, hiru talde sortu dira: 50

“Proiektuen bidez ari gara edukiak lantzen. Ikasleak dira informazioa bildu eta gaia ikertzen dutenak eta, bidenabar, hainbat kompetentzia lantzen dituzte. Txanela proiektua da gure markoa”.

“DBH egitera Zangozara joaten diren arren, astean behin Arangoitin elkartzan jarraitzen dute, eta horiek dira dantza taldearentzat txistua jotzen dutenak”.



UNA IKASTOLA QUE BAILA

Quizás sea la única ikastola en la que todos los alumnos bailan. Preparan tres espectáculos ante el público al año. Uno de ellos tiene lugar ante 500 personas y participan los 60 alumnos del centro, algunos de ellos con chupete. El nuevo edificio de la ikastola Arangoiti, en Irunberri, se levantó gracias a la solidaridad surgida del desastre del Nafarroa Oinez del 2003, la única fiesta de las ikastolas que se ha suspendido por el mal tiempo. Su aspecto es impecable, pero también la forma de trabajar en sus aulas es modélica. Llevan años trabajando a base de proyectos, incluso utilizan las redes sociales para socializar el proyecto educativo.



UNE IKASTOLA QUI DANSE

C'est peut-être la seule ikastola où tous les élèves dansent. Ils préparent trois spectacles par an. L'un d'entre eux a eu lieu devant 500 personnes, 60 élèves ont participé, certains avec la tétine à la bouche. Le nouvel édifice de l'ikastola Arangoiti, à Irunberri, a été érigé grâce à la solidarité montrée suite au désastre Nafarroa Oinez de 2003 annulé à cause du mauvais temps. L'ikastola travaille sur beaucoup de projets et utilise les réseaux sociaux pour socialiser son projet éducatif.

iPAD2 BAT IRABAZI NAHI?

HAU DA EGIN BEHAR DUZUENA:



bat

OSATU GEHIENEZ 3 LAGUNeko TALDEAK ETA IKASGELAN LANTZEN DUZUEN EDOZEIN GAIRI BURUZKO BIDEO BAT GRABATU. ARGAZKIAK, GRAFIKOAK EDOTA AUDIOAK ERE SOR DITZAKEZUE.

bi

BUKATZERAKOAN IGO IRAKASLEAREN BIDEZ AZKUE FUNDAZIOAREN MULTIMEDIA GUNERA klikasi.azkuefundazioa.org



hiru

ESKATU LAGUNEI ZUEN ALDEKO BOTOA EMATEKO ETA ZORTE ON!

1. Saria: Taldekide bakoitzarentzat iPad2 bat



2. Saria: Taldekide bakoitzarentzat iPod Touch bat



Eduki gehien igo duen ikastetxearentzat bideokamera bat



AZKUE
FUNDAZIOA

EGIN BAT GUREKIN!



ELKARTASUN KUTXA *berria* BIDERAGARRITASUN EKONOMIKORAKO

Izaera juridikoa hartuko du lehen aldiz eta zazpi lurraldeetara hedatuko da

Taldeko Ikastolen bideragarritasun ekonomikoan hain garrantzitsua izan den Elkartasun Kutxak eredu berria hartuko du ikasturte honetan zehar. Lehen aldiz izaera juridikoa hartuko du, bai eta zazpi lurraldeetako hedadura ere.

Kooperatiba europarra izango da, *enpresak sustatzeko elkarte* modura. Abenduaren 1ean (2011) burutu zen Ikastolen Elkartearen aparteko batzarra, Kutxa berriaren estatutuak onesteko, eta bertaratutakoen aho bateko babesa jaso zuen. Ekainerako espero da erakunde berriaren sortze-saio formala. Lehen Elkartasun Kutxa sortu zela hogei urte beteko dira 2012an.



Elkartasuna ikaslearen hezkuntzan txertatu beharreko funtsezko balorea da ikastoletan. Hain garrantzi handikoa izanik ere, ez da horretara mugatzen. Ikastolen arteko talde jardunean bertan, ezaugarri propioen arteko zutoin nagusietakoa da; ezaugarri horien artean dago identifikatuta. Esandakoaren adierazlea da Elkartasun Kutxa.

Dirutan gauzatzen den elkartasuna da Kutxa horrek mamitzen duena. Ikastola bakoitzak egiten du ekarpena, denen artean bildutako dirua arazoak dituzten ikastolen artean banatzeko. Eskola talde bakarra gara, bere baitan halako baliabide bat instituzionalizatuta daukana.

Elkartasun Kutxa zer den ondo dakite ikastolek. Erreportaje honetan azaltzen du argazkiak ondo irudikatzen du Kutxa bera (argazkikoa Lander Urkia artisauren erreteriarrek utzi digu), bai eta eragina. Ikastola bakoitzak kuota baten ekarpena egiten du urtero, dauzkan ikasleen arabera, denen artean batzarrean ebatzitako irizpideen arabera. Ekarpene osoaren banaketa ere denen artean ebazten da, batzarrean. Jasotako emaria bideragarritasun ekonomikoan arazoak dituzten ikastoletara joaten da, askotan eraikin eta instalazio berrien edo berrituen finantzazio planak osatzera.

Elkartasun Kutxak ikastolen historian izan duen garrantziaz ohartzeko nahikoa da gogora ekartzea hainbat direla gaur egun abian egongo ez liritekeen ikastolak haren eraginez izan ez balitz. Lurralde guztietako ikastolek jaso izan dute noizbait Elkartasun Kutxaren laguntza.

EREDU INSTITUZIONALIZATUA
Instituzionalizazioa aipatu da lehen. Hain zuzen ere, horren bidean inoizko urratsik sendoena ematen ari da Elkartasun Kutxa

ikasturte honetan. Iragan abenduaren 1ekoa izan da orain arteko pasarterik esanguratsuenak. Bertan onetsi ziren proiektu berriaren estatutuak. Jarraian adieraziko da mamia zertan den, baina aurretik gogoraraziko da 2012an beteko direla 20 urte lehen Elkartasun Kutxa abian jarri zenetik.

Oraingo eraldaketa antzinatasunaren borobilarekin bat etortzea kointzidentzia hutsa da. Ibilian ikasitakoak ekarpen nabarmena egin du, ordea, egitasmo berrian. *Ikastolen Elkarteko Elkartasun Kutxa* da estatutu berriek definitzen duten proiektua. Hona hemen ezaugarrietako batzuk.

Ekarpenen mugimenduari erreparatuko diogu aurrenik. Haien banaketa egiterako orduan, laguntzen onuraduna izateko Ikastolen Elkarteko bazkide izan beharra dago. Kutxarako ekarpeni dagokienez, bestalde, orain arte ikastolek bakarrik egin izan dituzte; estatutu berriek atea ireki dute kanpoko emariak ere jaso ahal izateko.

Ikuspegi instituzionaletik begiratzen badiogu, hasteko lehen aldiz eman zaio izaera juridiko-administratibo propioa Elkartasun Kutxari. Berriro ere kooperatiba hartu da eredu moduan, kooperatiba europarra, hain zuzen ere. Kooperatiba berriak batzarra eta gestio-plan propioa edukiko ditu, baina bere bazkideak Ikastolen Elkarteko berberak dira, Artezkaritza Kontseilua bezala. Ereduan ez, izaera juridikoan dira

Lurralde guztietako ikastolek jaso izan dute noizbait Elkartasun Kutxaren laguntza.

• **Hainbat ikastolaren izatea bera Elkartasun Kutxaren ekarpenari zor zaio.**



ORION ANTOLATU ZEN IKASTOLEN APARTEKO BATZARRA, ABENDUAREN LEHENAN. BERTAN ATERATAKO HAINBAT ARGAZKI JARRAIAN NON IKASTOLETAKO ORDEZKARIAK, GURASO ETA PROFESIONALAK, AGERTZEN DIREN.





ALDIZKARIAREN AZALEAN ETA GOIKO ARGAZKI HANDIAN, IKASOLETAKO HAINBAT GERENTE EDO KUDEATZAILERAK: AIMARA AROSTEGI, URKORRODRIGUEZ, MIRIAM ZUAZOLA ETA MARTIN ETXEBERRIA, LEHEN ILARAN, ATZEAN, PATXI OLABARRIA, ZALOA ALDATZ, JOSE LUIS SUKIA ETA IDURRE MAORTUA.

desberdinak erakunde bat eta bestea. Elkartasun Kutxa *enpresen sustapenerako elkarte*a da definizio administratiboan; Ikastolen Elkartea ez.

Definizioak berak beste aldagai bat baldintzatzen du Elkartasun Kutxaren funtzionamenduan. Orain arte ikastolei ematen zien dirua ezere trukekoa zen. Aurrerantzean mailegu (baldintza jasagarrietan, noski) moduan edo kapital ekarpen bezala egingo dira diru-emateak. Horrela, ikastola jasotzailea eta taldearen arteko loturak sendotu egiten direla ulertzen da, haren autonomia baldintzatu gabe beti ere.

EMAKUMEAK KUDEAKETAN

Proiektu berrian bada beste aztarna aipagarrikerik ere. Soziologiko bat aipatuko dugu oraingoan, taldearen barnean ematen ari diren aldaketen adierazgarri. Azken urteetara arte emakume gutxi ikusten zen ikasoleetako gestio ekonomiko-administratiboan. Hori aldatzen ari da. Duela hogei urte sortu zen lehen Elkartasun Kutxako lantalde guztia gizonezkoek osatutakoa zen. Hona hemen ordukoen izenak: Iñazio Arregi, Imanol Igeregi, Iñaki Zubeldia, Jose Luis Sukia, Jon Zurutuza,



Fernando Babaze eta Alberto Mendia; Bergarako Aranzadi, Sopelako Ander Deuna, Errenteriako Orereta, Ordiziako Jakintza, Irungo Txingudi (gaur egun publikatutakoa) eta Azpeitiko ikasoleetako zuzendari-gerenteak hurrenez hurren.

Oraingoan seitek lau dira emakumeak: Aimara Arostegi, Idurre Maortua, Zalóa Aldatz eta Miriam Zuazola. Beste biak Martin Etxeberria eta Urko Rodriguez dira. Aipatutako hauetako bakoitza bere ikasolako zuzendari da, hala nola, Zornotzako Andra Marikoa, Durangoko Ibaizabalekoa, Laudiokoa,



▲ Santurtziko Bihotz Gazteakoa, Zarauzko Salbatore Mitxelenakoa eta Durango Kurutzagakoa, hurrenez hurren. Musu-truk egiten duten lana da, taldeko barne-elkartasun jardunaren baitakoa, orain arte bezala, eta beste atal batzuetakoa bezalakoa, Lan Hitzarmenaren batzordeko kasu, besteak beste. Taldea guztiz osatzeko bi izen falta dira hala ere, Jose Luis Sukia eta Patxi Olabarria, Ikastolen Elkarte Egonkortasuneko zuzendaria eta Zerbitzuetako OKUaren arduraduna, alegia (Oinarritzko Kudeaketa Unitatea, egitura funtzional berriaren arabera).

Elkartasun Kutxaren ezaugarri buruzko azken aipamen bat egingo dugu. Abenduaren 1ean, Orion

BAZKIDE DIREN 93 IKASTOLETATIK 83 IZAN ZIREN BERTAN ORDEZKATUTA, BOTOEI DAGOKIONEZ, 144 IZAN ZIREN ELKARTE OSOARENAK, ETA 127 ZIREN BERTARATUTAKOAK. GUZTIRA LAU BOTA KETA IZAN ZIREN: GORRIA ELKARTASUN KUTXA ETA ESTATUTUAK; BERDEA, ERABAKI OSAGARRIAK; URDINA, DIRU BANAKETA; ETA HORIA, ARTEZKARITZA KONTSEILUAREN BERRITZAPEN PARTZIALA.

burututako Aparteko Batzar Nagusian, Ikastolen Elkarteak babes osoa eman zien estatutu berriei. Bazkide diren 93 ikastoletatik 83 izan ziren

bertan ordezkaturak. Botoei dagokionez, 144 dira Elkarte osoarenak, eta 127 ziren bertaratutakoak. Hauek aho batez onetsi ziren estatutuak. Hurrengo

Ikastola bakoitzak urteko eta ikasleko 15 euroko ekarpena egiten du gaur egun.

Elkartasunaren onuradunak Ikastolen Elkarteko bazkideak izango dira.

urratsa Elkartasun Kutxa berriaren sortze-saioa burutzea izango da. 2012ko ekainerako espero da. Hortik aurrera ibilbide berria izango du.

Egoera berrian Elkartasun Kutxak hedadura nazionala hartuko du berriz. Zazpi lurraldeetako ikastolak zeuden estatutu horien bozketan, gaur eguneko Ikastolen Elkarteak. Duela 20 urte lehen aldiz sortu zenean ere, 1992an, Euskal Herri osoko ikastolak bildu ziren egitasmoan, Euskal Herriko Ikastolen Konfederazioaren baitan. Nafarroako eta Seaskako ikastolei lagundu, eta Araban Armentia ikastola sortzeko xedez eman ziren lehen urratsak. Lau urte geroago, Gasteiztik administratutako hirukote autonomikoan Euskal

Escola Publikoaren legeak haustura ekarri zuen ikastolen mugimendura. Ondorioz, 1996an Kutxak Araba, Bizkaia eta Gipuzkoako dimentsioa hartu zuen, egoera berriak sortutako arazoetan bertako ikastolei laguntzeko. Orain, berriro lehengo hedadura nazionala hartuko du.

Elkartasun Kutxaren ekarpen zehatzari dagokionean, diru kopuruek ere merezi dute aipamenik. Duela hogeitaz urteko lehen urteko eta ikasleko. Azken Elkartasun Kutxaren aurrekontua 600.000 eurokoa da. Ikastola bakoitzak 15 euro jarri ditu ikasleko eta urteko. ●

LA CAJA DE SOLIDARIDAD EMPRENDE UNA NUEVA ETAPA

Elkartasun Kutxa, nuestra Caja de Solidaridad, ha sido desde su creación un instrumento de gestión fundamental para la viabilización económica de innumerables ikastolas con dificultades. Durante el curso 2012-13 comenzará una nueva andadura, para lo cual han comenzado a darse ya los primeros pasos. El pasado 1 de diciembre tuvo lugar una asamblea general extraordinaria de Ikastolen Elkarte

para aprobar los estatutos de la nueva Kutxa. Por primera vez en su historia, dispondrá de personalidad jurídica. Será una cooperativa europea, que funcionará a modo de sociedad de promoción de empresas. Las ayudas de Elkartasun Kutxa irán destinadas a las ikastolas asociadas a Ikastolen Elkarte. En junio de 2012 tendrá lugar la asamblea fundacional de la nueva entidad, justo cuando se cumplen 20 años de su creación.

ELKARTASUN KUTXAK IBILBIDE BERRIA

Arazo ekonomiko larriak dituzten ikastolek aurrera egin ahal izateko lanabes ezinbestekoa izan da Elkartasun Kutxa sorrera beretik. Datorren ikasturtean (2012-2013), hala ere, ibilbide berri bati ekingo dio eta dagoeneko hasi da urrats batzuk ematen. Abenduaren 1ean egin zuen Ikastolen Elkarteak Kutxa berriaren estatutuak onartzeko ez ohiko batzarra. Bere historian lehen aldiz nortasun juridikoaren jabe

izango da Elkartasun Kutxa. Kooperatiba europarra izango da eta enpresak sustatzeko elkarte baten gisan funtzionatuko du. Ikastolen Elkarteko kide diren ikastolei bakarrik banatuko dizkie, noski, bere laguntzak. 2012ko ekainean egingo da erakunde berriaren sorrera batzarra, sortu zela 20 urte betetzen dituen hain juxtu.

otsailak 11
martxoak 24
maiatzak 5

Zein gradu ikasi nahi duzu?

Ateak Zabaltzeko
larunbatak 2012
Etor zaitez gu ezagutzera!

Cancel


Continue

Bilboko Campusa

Unibertsitateen etorbidea, 24

Donostiako Campusa

Mundaiz, 50



900 500 600

ikasleberriak@deusto.es

www.ikasleberriak.deusto.es



 tuenti

ATE IREKIAK



Goi Eskola Politeknikoa

Goierri URTARRILAK 26 osteguna, 17:30 **Arrasate** OTSAILAK 4 larunbata, 10:30

Enpresagintza Fakultatea

Oñati OTSAILAK 18 larunbata, 11:00 **Irun** OTSAILAK 23 osteguna, 18:00

Humanitate eta Hezkuntza Zientzien Fakultatea

Eskoriatza OTSAILAK 2 osteguna, 18:00

Gastronomia Zientzien Fakultatea

Donostia OTSAILAK 16 osteguna, 18:00

